

ERBESTERATUAREN FEDEA

Lurraren eta norberaren lurraldearen –herrialdearen– esperientzia funtsezkoetakoa da giza bizitzan. Norbera jaio eta hazitako lurrarekiko atxikimenduak nola edo hala geure bizitza osoan iraun ohi digu. Eta nor bere lurraldetik urrun bizi denean ere, bizi-esperientziaren elementu nagusitzat gorde ohi du bakoitzak bere sorterria.

Lurra eta lurraldea esatean, ordea, auzoko edo herriko mendiak, ibaiak, basoak, bideak eta gainerantzeko txokoak baino gehiago adierazi nahi dugu hemen; horiekiko esperientzia norbera hazi eta bizi izan deneko gizaritari eta kulturari baitago lotuta. Horregatik, lurra eta herria batera doaz esperientzia horretan, eta norberaren lurraldea norberaren herrialdea da, izan. Lurraren esperientzia bera gizon-emakumeen kulturaztapenaren dimentsio nagusietakoa da. Horrela norbera jaiotako leku geografiko eta sozial hura jaioterrria baino gehiago da: sorterrria; hots, nor bere mundura sortu zeneko lekua izateaz gain, nork bere sormena garatzeko ingurune kulturala da.

Lur-sailen baten jabe izatea baino maila askoz sakonagokoa gertatzen da gizon-emakumeen lurrarekiko, lurraldearekiko atxikipena. Horregatik nork bere lurraldea eta herrialdea behartuta utzi eta herbestera –atzerri– aldatzeak gehienetan izan ohi du giza bizitzan eta historian izaera dramatikorik.

Emigrazio ekonomiko eta laborala beti da mingarria eta egoera larriaren adierazgarri: Langabezia, pobretasuna... Eta forma dramatikoak hartzen ditu beti, azpian dauden hainbat modutako indar eta erakunde ustiatzaileen eraginez. Zinismo hutsa besterik ez da lanagatik emigrazioa globalizazioaren eta horrek eskaintzen bide dituen “lan-aukera” berriekin parekatzea.

Era berean *exilio* politikoak norberaren herrialdean arnas politikorik hartu ezina nabarmentzen du, boteredunek ezarritako diktadura delako edo arerio politikoen aurkako jazarpenagatik. Iheslariak ihesaren drama eta mina bizi behar ditu, atzerriko errefuxiatuaren babesa lortu baino lehen. Bere etxeko babesa eta bere lurraren babesa galdu duelako, besteak beste. Eta gainera exilio-ko babesa nolabaitekoa da, legez, lanez, bizitzaz eta kulturaz bertakotzea lortzen duen arte erbesteratuak.

Gizon-emakumeen eta Herrien beren lur eta lurraldearekiko kidetasun eta lotura horiek haustea izan da aginte-sistema politikok historian barna erabili izan dituzten zigor baliabide nagusietakoak: nor bere sorterrian edo aukeraturiko lurraldean bizitzeko eskubidea ukatuz edo kenduz. Izen eta forma legal –edo ezlegal– ezberdinak hartu ditu horrek: *desterrua*, *deportazioa*,

konfinamendua, *desplazamendua*... Beti da funtsean gauza bera, gizakia bere lurretik eta lurraldetik eraztea, deserrian, atzerrian, bizitzera behartuz.

Zigor horiek sarritan masiboak izaten dira, Estatu, Erresumen eta Inperioen politikaren barruan, lurralde berriak konkistatzeko eta berenganatzeko. Edo nolako oposizioa sustraitik mozteko bidetzat erabili izan dute konkistatzaileek edo estatu inperialistek herri-tarren deportazio masiboak. Guztiz normala baldin bizen hori antzitatean gerra-garaipenen ondorioz, aro modernoan eta geure egunotan ere denok ditugu gogotan eta begien aurrean horrelako gertakariak.

Atzerriatzea adierazteko deserriratzea ere esan ohi dugu, eta deserriratzea deserritzea da, lurgabetzea eta herrigabetzea, “erbeste”: Giza alienazio ekonomiko, sozial eta kulturalaren matriza.

Horieta forma da *dispertsioa* –burkide espetxeratu sakabanatzea eta beraien herritik eta familiarik urruntzea–, baina larriagoa eta dramatikoagoa, lehendik kartzelako hesien barruan askatasunik gabe dauden aurkako zigor gehigarria delako, eta zigor hori familia eta lagunengana zabaltzen delako.

GOGOETA APURRA BIBLIATIK: HERRIA ETA DESERRIA

Gabonaldian ari naiz lerro hauek idazten. Jesus Haurraren jaiotako idilio poetikoarekin batera horren exilioaren drama dakarkigute egun hauek, Herodesen jazarpen politikoaren azpian, Egiptora alde egin behar izan zueneko. Eta handik Israelera itzultzeko aukera izan zuenean ere, ez zuen bizitzeko Judea bere jaioterrria aukeraterik izan, bertan agintari berri zegoen Arkelaoen beldurrez, eta Galilean jarri zen bizitzen (Mt. 2, 21-23). Egiptorako “ihesa” gertakari historikoa izan gabe, paradigma historiko bihurtzen zaigu: Jesus bera exiliatuaren, atzerriatuaren paradigma azaltzen digu Ebanjelioak.

Bada Biblian exilioaren teologia, giza bizitzaren bekatu-esperientzian oinarritzen dena. Lehen gurasoen bekatuaren zuzeneko zigor-ondorioa horiek bizi diren lurretik botatzea da: “Beraz Jainko Jaunak Edengo barretetik bota egin zuen (gizakia), lurra landu zezan...” (Has. 3, 33). Eta aurrerantzean gizon-emakumeak bizi diren lurra, exilio-lurra bihurtuko zaie, “negar-herria”.

Bada beste ildo teologiko funtsezko bat, munduko Herri ugari eta ezberdinen sorrera eta izaera, bakoitzari

seinalaturiko lurralde eta guzti, Jainkoaren kreaioaren asmo eta obratzat ematen duena eta Haren bedeinkazioaren fruitutzat: "Goi-goikoak herriak nor bere lurraldean jartzean, gizateria munduan banatzean, lurmugak finkatu zizkien herriei, bakoitzari bere jainko zaindaria emanez" (Dt. 32, 8). Testu honek bere oihartzuna du *Apostoluen Eginak* liburuan (17, 26), non gizadiaren jatorri bakarraren gain, nazio guztiak baitira Jainkoak sortaraziak. Herrien eta lurraldeen banaketa horixe kontatzen digu *Hasiera* liburuko 10. kapituluak, behin eta berriro lelo hau errepikatuz: "Leinu eta herri bakoitzak bere lurraldea eta hizkuntza ditu" (Has. 10, 5.20. 31).

Herri eta lurraldeen ustezko mapa geografiko finko horrek –Jainkoaren beraren asmo eta nahian finkatuak– ez du zerikusirik Israelek ezagutu zuen inguruko munduaren eta bere historiarekin; hainbat inperio zahar desagiten eta inperio berriak sortzen ikusi baitzuen, non Herrien eta Erresumen arteko gerrak eta muga-aldaketak etengabeak baitziren. Eta ez du zerikusirik, jakina, denok ikasi eta ezagutu dugun historiarekin. Gerren eta biolentzien bidezko inperioen eraketen eta erorketen, Herrien zapalkuntza eta sunsipenen historia dramatikoen aurrez aurre geratzen da, ordea, Herrien identitatearen eta horien lurralde-identifikazioaren funts teologikoen baieztapena.

Sinesmen teologiko funtsezko horren eta goian azalduko esperientzia antropologiko oinarritzkoaren ukapen dramatikotzat bizi izan zuen Israelek herritarren exilio eta deportazio masiboen esperientzia. Horietan paradigmatico bihurtu ziren Israelen historian Egiptoko eta Babiloniako erbestealdiak, aurrena emigrazioaren ondorioz sortua, bigarrena deportazio masiboen ondorioz jasana. Bi gatibualdiek Herriaren askapenaren –Egiptotik irtetean edo Exodoan eta Babiloniatik itzultzean– dute amaiera itxaropentsua. Israelen oroitzapen historikoa guztiz markatuta utzi zuten bi esperientzia horiek, eta etengabe gogoratuko dituzte.

ERBESTEAREN BIZIPENA OTOITZ BIHURTZEN DENEAN

Hemen Babiloniako deportazioa eta gatibualdia aipatu nahi ditugu bereziki, jendea multzoka eta oldeka beraren lurraldetik erauztearen esperientzia gordinagoa eta dramatikagoa izan zelako. Izatez, Babiloniarako deportazio masiboak ugari izan ziren Israelen historia luzean; horietan azkena eta gogoangarriena, Nabukodonosorrek K.a. 6. mendean behartua, eta Jeremias profetaren profeziaren arabera (29,10), 70 urtez luzatu zena. Profetak berak era sintetikoaz kontatzen du bere liburuaren azken kapituluak (52.enean) Nabukodonosorrek Jerusalem ezarritako eraso eta israeldarren Babiloniarako deportazioa.

G. Verdiren Nabuco (=Nabukodonosor) operak kanta zirraragarri bihurtu zuen Babiloniako judu gatibuen protesta eta askapen-oihua: "Va pensiero...". Baina askozaz lehenago abestu zuten gertakari gogoangarri hura Bibliako salmoek, kanta-estilo eta genero guztietan, deserriratzeko-esperientzia latza (deportazioa) eta herri-

ratze-esperientzia itxaropentsua (itzulera) otoizgai bihurtuz.

Hainbat salmotan aurkitu ahal dugu Babiloniako gatibualdiaren oroitzapena, batzutan modu esplizituz, bestetan, zuzenean izena aipatu gabe. "Babiloniako ibai bazterretan eseriak geunden negarrez, oi Sion, zutaz oroituz", hasten da 137. salmoa. Eta jarraian protesta egiten du poetak babiloniarrek beren gozamenerako beportatuei jaioterriko kantak abesteko eskatzen dietelako. "Nola kantatu Jaunaren kanturik atzerriko lurraldean?". Deserrituaren otoitz mingotsa! Eta inperialisten betiko jokabidea: Herri zapalduen kultur adierazpenak folklore huts bihurtu, bitxikeriatzat jendeei erakusteko, zapalduen alienazioa areagotuz. Berriki Bernardo Atxagaren hitzaldia entzun nuen, Martin Ugalderen exilioko literatur sorkuntzari buruzkoa; bertan nolabait erudutzat ipini zuen idazlea, atzerriak horrelakoari ezarri diezaiokeen agorraldia gaingiduz, "sorterri" bihurtu zuelako atzerria; hau da, literatura sortzeko aukera bihurtu zuelako bere exilio-egoera. Testuinguru horretan aipatu zuen juduen Babiloniako erbestealdia ere... Baina juduen exilioa deportazioa izan zen; deportatu dituzten etsaien atzerria zen Babilonia, eta ez beren herritik ihesean doazen babes-herria.

Bestelako tonua du 126. salmoak, Babiloniako erbestealdetik aberriratzeko ospatzeko egindako kantuak. "Jaunak Sionen zoria aldatu zuenean, ametsetan ginela iruditzen zitzaigun. Barrez bete zitzaigun ahoa, poz-oihuz ezpainak... Bikain jokatu zuen gure alde Jaunak eta pozarren gaude. Jaunak aldatu du gure zoria, eurijasek basamortua bezala". Gatibualditik askatuta eta erbestealdetik itzuli eta berriro bere burua bere etxean eta herrian ikusten duenaren pozezko eta esker oneko otoitza da hau. Garaipen-tonu goragokoan ari da oraindik 98. salmoa: "Kanta Jaunari kantu berria, egintza harriarriak egin baititu... Mundu-bazter guztiek ikusi dute gure Jainkoaren garaipena. Egin irrintzi Jaunari, lurtar guziok, egin poz-oihu eta kantu, jo soinu".

Izan ere, salmoek ageri duten historiaren ikuskera teologikoen arabera, Jainkoak bere probidentzian babesten eta askatzen ditu zapalduak, eta bereziki sorterritik urrun, erbestean, bizitzera behartuak: "...Ikusi zituen Jaunak beren larrialdian eta haien garrasiak entzun. Oroitu zen haiekin egin zuen itunaz eta bere maitasun handiaz gidatu zituen. Haiekiko gupida sortu zuen erbestera eraman zituztenengan" (Sal. 106, 44-46). 42. eta 43. salmoak erbestean aurkitzen den israeldarraren ahotan ipinita daude.

Hamaika borroka-modu, trikimailu eta baliabide asmatu beharrean izaten dira erbestera tuak beren egoera gaingidzeko, eta ahal den neurrian emankor bihurtzeko, askapenaren (etxeratzearen eta herriratzearen) itxaropena elikatu eta sendotzearekin batera. Erbestera fededunak badu gainera uste onik, Jainkoa ulerkor eta aldeko duela, batez ere Jesus bera erbestera tuaren eta konfinatuaren eredu gertatu zenetik.

Paulo AGIRREBALTZATEGI
kultur eragilea